

ALTXA PORRU!

Iñaki Arizmendi Odriozola

Azpeitia

Herriko festak. Arratsaldeko bostak, eta nire lagunekin kalean nenbilen batetik bestera. Bazkari herrikoia amaitu eta parrandan jarraitzeko asmoz, mahaitik altxatu eta kalean gora eta behera genbiltzan iufika eta altxaporruka, neska haiekin gurutzatu ginenean. Bazkarian edandakoaren eraginez edo, ausartago sumatzen genuen geure burua. Eta asko pentsatu gabe hitz egiten hasi ginen geure aurrean genituen neska gazte haiekin.

Nire begiek berehala egin zuten tupust neska haietako batenekin. Bi begi berde haiek niri begira zeuden! Bihotzaren taupadak tupustean bizkortu ziren, abiantzadan doan zaldia lez. Zerbait esan nahi nion, bere arreta erakarri; baina ez zitzaidan hitz osorik iristen ezpainetara. Azkenean, zerbait atera zitzaidan.

–Nola duzu izena? –(“hi bai hi originala”).

–Maria, eta zuk?

–Nik Jokin. Nongoa zara? –(“Babo arraioa! Ez ote zaik ezer naturalagorik bururatuko”).

–Hemengoa naiz. Eta zu ere bai, ezta?

–Bai –(“Majadero alaena!”).

Zelako elkarrizketa! Bi hitz-totelen artekoa. Antzerki ospetsu batetik ateratakoa zirudien. Eskerrak besteak euren kontuekin zebiltzan! Arratsalde hura, ordea, elkarrizketa hartaz aparte, izugarria zihoan. Nire biziko arratsalderik ederrena. Tabernaz taberna ibili ginen elkarrekin, eta denok alai eta gustura genirudien. Ez neukan begirik neska hari begira egoteko baino.

Arratsaldeko zazpiak ziren biok bakarrik geratu ginenean, akordatzerako gure lagun guztiak falta baitziren. Orduan oso urduri jarri nintzen; ez lagunak falta zirelako, Mariarekin bakarrik geratu nintzelako baizik.

–Nora joan dira besteak? –galdetu zidan Mariak pixka bat kezkatzen hasita.

–Ez arduratu, nik lagunduko dizut –(“film bateko heroia ematen duk”) pentsatu nuen nire kautarako.

–Joan gaitezen besteen bila –esan zuen Mariak.

–(“Dutxatzeko ur izoztua”) Bai, horixe izango da hoberena –erantzun nion ahal nuen duinen.

Besteen bila hasi ginen, ez gogo handiz. Toki guztiak miatu genituen. Guztiak? Esateko modu bat besterik ez da.

–Eta mugikorretik deitzen baldin badiegu?
–berriro Mariak.

–(“Bigarren kolpea denbora gutxian”). Mikeli deituko diot –mugikorra etxean utzita izango zuelakoan

–Bai? –erantzun zidan telefonoaren beste alde-tik.

–(“K.O.” hirugarren asaltoan) Mikel? Non ezkutatu zarete?

–Ikusita panorama, etxera joatea erabaki dugu.

–(“Arnas pixka bat”) Ondo da. Bihar arte. Eta errekuperatu!

Azkenean, bidea libre nuen; edo nik hala uste nuen behintzat. (“Ni neu bakarrik autopistaren erdian nire Ferrariarekin”)

–Jakes! Jakes! –oihu egin zuen Mariak.

(“Jakes??? Nire Ferrariari lau gurpilak zulatu zitzaizkion tupustean”).

–Aspaldiko! Aupa Maria! Zelan? Bakarrik? –bi musu eman zizkion Jakes izeneko mutil lepatente hark.

Bat-batean ikusezin bihurtu nintzen; bai batentzat, bai bestearentzat. Luzaz egon ziren kalaka eta barrez. (“Eta ni guardia egiten”).

–Eskerrik asko, Jokin –Mariak irribarre gozo batekin esan zidan arte. (“Hartzak hori! Hi bai hi, lagun jatorra!”). –Ea hurrengo batean ere elkar ikusten dugun –(“Bai horixe, berriro ere gustura lagunduko dinat” “lagunak aurkitzen”).

Eta lagunak agurtzeko ematen diren bi musu zaratatsu nardagarri horietakoekin agurtu ninduen. (“Nire musu isilak gustatzen zaizkit”. –Isil hadi mozolo pintto halakoa!. “Ematen ez diren musuak baino isilagoak...”).

Hantxe geratu nintzen, kieto, plazaren erdian, esku bat poltsikoan eta bestea baso bati helduta; hankak zabalik, eta tonto aurpegiarekin.